



LHko ikasgelan lantzeko materiala

Nerbioi-Ibaizabal bailarako ikastetxeetan tokian tokiko eta bailarako ondare etnolinguistikoa lantzeko egitasmoa



- 3. orrialdea - Kalekumeak: Toponimoak lantzen
- 4. orrialdea - Zer da ba?: Hiztegia lantzen 1
- 6. orrialdea - Ni bizi nahiz baserrian: Gure ohiturak
- 7. orrialdea - Berbalapikoa: Hiztegia lantzen 2
- 10. orrialdea - Ekina baragarria da: Esaera zaharrak lantzen
- 14. orrialdea - Kantuke eta kontuke: Bertsoan kantari

44 toponimo (22 eraikin / 22 paraje)

Eraikinak

Abrisketako San Pedro (ermita, Arrigorriaga)
Andra Mari (eliza, Galdakao)
Aranguren (torretxea - Orozko, XVI.)
Arbide (zubia, Arrankudiaga, 1638koa)
Ariz (torretxea, Basauri)
Azibai (baserria)
Basolin (iturria)
Bengoa (jauregia)
Berazatorre (baserria)
Egarriturri (iturria)
Eperretxe (baserria, Arakaldo)
Jane (jauregia, Ugao-Miraballes)
Legorburu (jauregia)
Lezo (baserria)
Maltzarbeitierrota (errota)
Olabarri (iturria)
Pikatzta (baserria)
Pozogorri (iturria)
Torlanda (torretxea)
Ugarte (jauregia)
Zubiaga (baserria)
Zubiondo (errota, Etxebarri)

Aurkintza-Parajea

Alarrieta (basoa)
Altube (ibaia)
Aresketa (auzoa)
Arkotxa (auzoa, Zaratamo)
Arno (mendia)
Basoerreka (erreka)
Elorritxugana (mendia)
Erletxe (parajea, Galdakao)
Galiturrieta (aurkintza)
Ibaizabal (ibaia)
Ibarra (auzoa)
Irubide (parajea, Basauri - Galdakao)
Itxina (parajea, Orozko)
Malmasin (mendia)
Ollargan (mendia, Arrigorriaga - Basauri)
Supelegor (haitzuloa)
Upo (mendia, Arrigorriaga - Galdakao)
Urgozo (basoa)
Urigoiti (auzoa)
Usabel (auzoa)
Zizaleku (basoa)
Zubiaur (auzoa)

Zer da ba?: Hiztegia lantzen 1



100 berba+sinonimoa

Abazuzea=Txingorra
Ahurkadea=Esku betea
Amaibakoa=Bukaezina
Amañea=Amona
Amatau=Itzali
Aratustea=Inauteriak
Armozua=Gosaria
Arpana=Trontza
Arrastia=Arratsaldea
Astea=Kirtena
Atuna=Hegaluzea
Atxarri egin=Sasieskola egin
Atxurra=Aitzurra
Atzamorra=Azkura
Baragarria=Barregarria
Behar egin=Lan egin
Berakata=Baratxuria
Berkakera=Hizkera
Berbotsa=Hitzotsa
Berenberegi=Apropos
Bernak=Hankak

Bihurria=Okerra
Burugogorra=Tematia
Edabea=Edaria
Egundo=Inoiz
Eho=Irindu
Epertargia=Ipurtargia
Eratzia=Zauria
Ekusaua=Komuna
Ezkarata=Sukaldea
Firua=Haria
Galarazo=Debekatu
Garoa=Ihintza
Guardasola=Aterkina
Hatsa=Kiratsa
Igarri=Asmatu
Ihartu=Lehortu
Ikoa=Pikua
Indarbakoa=Indargabea
Iretargia=Ilargia
Isusi=Eskobatu
Itailatu=Goldatu
Izartu=Esnatu

Izetu=Piztu
Jaramon egin=Kasu egin
Jesarri=Eseri
Karneroa=Garnera
Katakuxea=Lepazuria
Kirikolata=Kirikinoa
Kobazuloa=Haitzulo
Koitadua=Gizajoa
Kortea=Ukuilua
Kuartilua=Litro erdi
Kurubioa=Liztorra
Laprast egin=Irrist egin
Leia=Izotza
Lez=Bezala
Lohi=Zikin
Lotsorra=Lotsatia
Lukia=Azeria
Madaria=Udarea
Mastarra=Zaldarra
Memeloa=Kokoloa
Mixarra=Urtxintxa
Oinaztua=Tximista

www.zuztarluze.com



orozko



Zer da ba?: Hiztegia lantzen 1



100 berba+sinonimoa

Okarana=Arana
Okelua=Bazterra
Okotza=Kokotsa
Olgau=Jolastu
Ortozik=Oinutsik
Ortuaria=Barazkia
Ostendu=Ezkutatu
Osterabe=Berriro
Otordua=Jatordua
Porasuz=Poderioz
Potxingoa=Putzua
Putxea=Gatzatua
Satsa=Simaurra
Sendia=Familia
Sorotsi=Zelatan egin
Sugelindea=Sugandila
Tangadea=Tanta
Trapea=Narra
Trokea=Sakonunea
Troxea=Kaxa handia
Txikerra=Txikia
Txiriketan=Korrika

Udagoiena=Udazkena
Ugaraxoa=Igela
Ugazabea=Jaubea
Uriola=Uholdea
Urrin=Urruti
Urteguna=Urtebetetzea
Zanetena=Zaintiratua
Zaperoa=Oiloen jatekoa
Zelan=Nola
Zemendia=Azaroa
Zila=Zilborra
Zozpala=Ezpala
Zuztarra=Sustraia

20 argazki

Soloko tresneria: animaliekin erabiltzen dena

Makinea, narra, areak, itailak, karramarroa, txilindroa, alperra...

Soloko tresneria: norberak erabiltzekoa

Aitzurrak, igitaia, eskubarea, mokil-porrea, sardea, kakoa, laiak...

Baserriko animaliak

Oiloa, oilarra, oilandak, oilaskoak, txitak...

Behia, idia, zekorra, txahala...

Ardia, aharittoa, artxoa...

Soloan ipinten den jeneroa

Artoa, indabak, patatak, piperrak, tomateak, azenorioak, idarrak, bainak, kalabazak...

Fruta-arbolak

Sagarrondoak, madariondoak, pikondoak, gereziondoak, mizperuak...

Basoko animaliak

Azkonarra, basurdea, katumixarra, lukia, ogigaztaia, kirikolatza...

Basalandareak

Bitxilorea, ginarra, ira, larrosa, malba, otea...

Txoriak

Birigarroa, kurloia, mika, txindorra, urretxindorra, elai...

Baserriko abereetatik lortzen ditugun jatekoak

Esnekiak: gazta, gatzatua...; arrautzak, okela; txarrikiak: pernilak, txorizoak, buzkantzak...

Baserriko lanetatik sortutako herri-kirolak

Harria jasotzea, txingak eroatea, enborrak aizkorarekin edo trontzarekin ebagitea, sokatira...

100 berba+definizioa

Abazuzea=Hotzaren ondorioz lei zati biribiletan jausten dan euria.

Ahurkadea=Esku baten sartzen dan gari, indaba... kopurua.

Amaibakoa=Amaierarik ez daukana.

Amañea=Norberaren ama edo aitaren ama.

Amatau=Argitzeari edo erretzeari itxi; argia edo sua kendu.

Aratustea=Garizuma aurretik egiten dan ospakizuna.

Armozua=Goizean hartzen dan otordua, eguneko lehena.

Arpana=Trongoak ebagiteko erabilten dan zerra handia.

Arrastia=Eguerditik ilunabarrera doan denpora-tartea.

Astea=Euskarria edo atxikigailua.

Atuna=Marmitakoa egiteko erabiltzen dogun arraina.

Atxarri egin=Eskolara ez joatea, huts egitea.

Atxurra=Lurra zulotu, landu eta jorratzeko lanabesa.

Atzamorra=Atzazalekin narruazala igurtzeko gogoia.

Baragarria=Persona edo gauza arraroa, bitxia.

Behar egin=Onuragarri bat lortzeko ahalegina eskatzen dauan jarduna egin.

Berakatza=Jatekoari bizitasuna emoteko erabilten dan ortuaria.

Berbakerea=Berba egiteko era.

Berbotsa=Bateratsu berba egitean entzuten dan ahopeko berba-zarata.

Berenberegia=Lehenagotik halan pentsauta egiten dana, apropos egiten dana.

Bernak=Belaunaren eta oinaren bitarteko soin-atala.

Bihurria=Gaiztakeriak edo bihurrikeriak egiten dituana.

Burugogorra=Eretxiz nekez aldatuko dana.

Edabea=Likido edangarria.

Egundo=Sekula be ez.

Eho=Garua edo alea birrindu.

Epertargia=Eperdian gauzez ikusteko moduko argitasun berezia daukan intsektua.

Eratzia=Azalean egiten dan urratua.

Eskusaua=Txiza eta kaka egiteko lekua.

Ezkaratza=Jatekoa prestetako egokituta dagoan etxeko gela.

Firua=Josteko edo ehunak egiteko erabilten dan ardilanazko, linozko... materia.

Galarazo=Zeozer egiten itxi ez, legez edo aginduz.

Garoa=Gau eta goizalde hotzetan, hezetasunagaitik lurrean, landaretan... erutzen diran ur-tantak.

Gizalana=Solo-lurretako azala neurtzeko erabilten da.

Guardasola=Euritik babesteko erabilten dogun tresna.

Hatsa=Usain txar-txarra.

Igarri=Ustearen edo intuizinoaren bidez zeozertaz konturatu.

Ihartu=Landareari bere hezetasuna eta berdetasuna joan.

Ikoa=Azal berdea, morea edo baltzizkadun fruitua; mamia gorria eta hazi txikiz beterik daukana.

100 berba+definizioa

Indarbakoa=Indarrik ez daukana.

Iretargia=Lurraren inguruan biraka dabilen satelite naturala.

Isusi=Ginarreagaz garbitu.

Itailatu=Lurra landu, itailea pasau.

Izartu=Lo dagoana bere egoeratik atera.

Izetu=Amataurik dagoana biztu.

Jaramon egin=Arreta jarri edo nonork esana kontuan izan.

Jesarri=Atsedena hartzeko eperdi-maminak aulki edo antzeko zeozeren gainean ipini.

Karneroa=Gaztaiak sikatu daitezcan erabilten dan apal modukoa.

Katakuxea=Lepahoriaren familiako ugaztun haragijalea, paparrean orban zuria dauana.

Kirikolatza=Gorputza arantzaz beterik daukan ugaztun txikia.

Kobazulua=Hatxetan berez egoten dan zulounea.

Koitadua=Bere zorigaitzagaitik besteengan lastima eragiten dauana.

Kortea=Baserri barruan abereak euki edo gordeteko lekua.

Kuartilua=Litro erdiko neurria.

Kurubioa=Erlearen antzeko intsektua, gehienetan baltzak eta batzuetan marra horiekin.

Laprast egin=Leku labanean oreka galdu.

Leia=Izozturiko ura.

Lez=Bardintasuna adierazoten dauan berbea da.

Lohi=Garbi ez dagoana.

Lotsorra=Erraz eta arin lotsatzen dana.

Lukia=Kanidoen familiako animalia, mustur luze, belarri tente eta buztan luze uletsuduna.

Madaria=Azal berdea, beilegia edo arrea eta barru zuria dauan fruitua.

Mastarra=Azaleko gaixotasuna, odoleko gatzak eragindakoa.

Memeloa=Leloa edo adimen gitxikoa dana.

Mixarra=Basoetako animalia txikia; gehienetan ilegorria, buztan luzea eta lodia daukana.

Oinaztua=Ekaitzetan, lerro bihurtikatu eta adarkatu bat eratzen dauan argialdi bizi eta laburra.

Okarana=Azala leun, mamina gozo eta kolore zuria edo gorrixka daukan fruitu biribila.

Okotza=Gizakien arpegian, ahoaren azpiko aldea.

Olgau=Jolasaren bidez atsegin hartu, jolasean ibili.

Ortozik=Oinetakoak jantzi barik.

Ortuaria=Ortuan landatzen dan edozein landara mota.

Ostendu=Nonor edo zeozer ikusten ez dan tokian jarri.

Osterabe=Beste behin, atzera be.

Otordua=Jateko ordua edo aldia.

Porasuz=Ekinarez ekinez, urteen edo zeozeren indarrez... adierazten dau.

Potxingoa=Euri-pozua, urez beteriko lur sakonune txikia.

Putxea=Esnea gatzatu eta gero egiten dan ore bigun gozoa.

Satsa=Animalien korotza, soloetan ongarrri natural lez erabilten dana.

100 berba+definizioa

Sendia=Aita-amak eta seme-alabak osatzen daberen familia unidatea.

Sorotsi=Zaindu, jagon, zelatau.

Sugelindea=Hormetan edo harri artean bizi dan narrasti txikia.

Tangadea=Forma biribila hartzen dauan edozein likidotako partikula.

Trapea=Mokilak birrindu edo apurtzeko erabilten dan egurrezko tresna.

Trokea=Lurrazaleko sakonunea edo beherakada.

Troxea=Garia edo beste uzta batzuk gordeteko kaxa handia.

Txikerra=Ohiko neurrira edo tamainura heltzen ez dana.

Txiriketan=Oinez baino bizkorrago edo arinago ibili.

Udagoiena=Uda eta neguaren artean dagoan urte-sasoia.

Ugaraxoa=Ornodun urlehortar buztan bakoa, azala biguna eta leuna, eta atzeko hankak luzeak dituana.

Ugazabea=Zeozeren jaube dana; etxe, lantegi edo antzekoen buru dana.

Uriola=Ibai edo erreketako urak gainezka indar handiz egitea.

Urrin=Erreferentziazko puntu biren arteko distantzia luzea dagoanean.

Urteguna=Jaiotegunaren ospakizunaren eguna.

Zanetena=Zurda edo tendoiren bateko bihorkadea.

Zaperoa=Oiloei jaten emoteko prestetan dan nahastea.

Zelan=“Zein modutan” edo “zein eratan” esan gura dau.

Zemendia=Urtearen hamakagarren hilea, abenduaren aurre-aurrean dagoana.

Zila=Sabelaren erdialdeko orban biribila, zulo txiki bat eratzen dauana.

Zozpala=Aizkorarekin egurra txikitzean urteten dan egur zatia.

Zuztarra=Landaren organo hau lurrazpian hazten da, eta mineralak eta ura bertatik hartzen ditu.

50 esaera: 5 berbatako 15 esaera

Abuztuko euria, ardaoa eta eztia

Abuztuan euri gitxi egiten dauenez, euria egitea asko estimetan da.

Arantza bako larrosik ez dago

Gauza guztiek daukie alde ona eta txarra.

Atxur bakotxak bere astea dauko

Danak dauka bere pare; beti aurkitzen da norberaren moduko pertsona bat.

Belea ez da baltzago egingo

Gauzak txarto doazanean, okerrago ezin dirala joan adierazoteko erabilten da.

Bururik ez daukanak, txapela sobran

Burubakoari ez jako ardurarik edo eginkizunik emon behar.

Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon

Egoerea aproposa danean, aprobe txau egin behar da; ez danean, ordea, dagoanagaz konformau beharra dago.

Edurraren gaineko leia, edurraren deia

Edurra egin ostean leia bota ezker, barriro edurra dakar.

Egur eskarmentatua sugin ona da

Esperientziak erakusten deusku zelan jokatu egoera desbardinetan.

Etxean zer ikusi, ha ikasi

Umeak etxean ikusitakoa ikasten dau.

Ganorabakoaren etxean, goizeko zopa arratsean

Ganorarik ez dagoanean, edozer egiten da jateko zein beste edozertarako.

Goizeko behelainoa, eguerdiko denpora ona

Goizean behelainoa badago, eguerdian denpora ona egongo da.

Hodei gorri, haize edo euri

Hodei gorriak egon ezker, haizea edo euria dakar.

Jan bako ederrik ez dago

Lodi dagoanak asko jaten ez dauela esaten dauenean erabilten dan erantzuna da; asko jan ezker, gizendu egiten dala adierazoteko.

Lurrean dagoan arbolatik, dana egurra

Txarto dagoanari etorten jakoz arazorik gehien.

Zelango pare, karakola eta barea

Pertsona bi izaeraz alkarren antzekoak diranean esaten da.

50 esaera: 6 berbatako 15 esaera

Asto txarra ez da sekula errentzen

Asto txarragaz behar gitxiago egiten da, horregaitik minduteko aukera gitxiago dauka.

Behargin onarentzat ez dago erreminta txarrik

Behargin ona danak edozein modutara eta edozein tresnagaz egiten dau lan; behargin txarrak, ostera, beti ditu lan ez egiteko atxakiak.

Bostak eta iluna, txarria hilteko eguna

Neguko egunak sano laburrak izaten dira, eta txarriak orduantxe hiltzen dira.

Burua txapela ipinteko bakarrik ez da

Burua pentsetako be erabili behar da.

Bururik ez daukanak, hankak ibili behar

Zeozeren bila joan eta bertan ahaztu ezker, hankak erabili beharko ditugu bueltau eta berori hartzeko.

Eperdi bategaz ezin okupatu banku bi

Pertsona batek ezin ditu gauza bi aldi berean egin.

Euri-tangadak alperrari jotzen deutso lehenengo

Behargina alde batetik bestera ibiltzen danez, ez da konturatzen euria egiten dauenik be; alperra geldi egoten danez, bai.

Guk txarria gizendu eta harek jan

Behar txarra batzuek egiten dabe eta irabaziak beste batzuek hartu.

Guzur baten atzean beste lau datoz

Guzurra sinigarria izan daiten, gehienetan beste guzur batzuek apaindu beharra dago.

Haizea, ura eta sua norbere eskupetik

Hiru elementuok ahal dala neurrian izan behar dira, hortik gora ezin diralako kontrolpean euki.

Itsurik txarrena, ikusi nahi ez dauena

Gauzak ikusi edo ulertu nahi ez dituanari esaten jako.

Jakin gura ez danik, esan ez

Sekretu bat gorde nahi danean, hobe inori esan ez

Jakituna sarritan isilik, ezjakina isildu ezinik

Zentzunaz berba egingo ez bada, hobe da isilik egon.

Luki zaharra, beti goiztar eta bizkor

Gauzak sasoiz egin ezker, hobeto aprobetxetan da denporea; geroko itxi ezker, estu eta larri ibili behar.

Pobre zeruko lore, aberatsa infernuko lebatza

Aberatsa baino, hobe da pobrea eta ona izatea.

50 esaera: 7 berbatako 10 esaera

**Arotzaren etxean, otzara aulki; errementariarenean,
zotza burrunzi**

Norberaren etxean norberak egiten dituan gauzak ez dagozanean, edo norberak dituan gaitasunak etxean erabilten ez diranean esaten da.

Asto bati buztana kendu eta besteari ipini

Gauza bat konpontzeko beste bat izorratzen danean erabilten da.

Begi bik baino gehiago ikusten dabe lauk

Bakarrik baino, beste baten laguntzaz hobeto egiten dira gauzak.

Beheko suak aurea berotu eta atzea hotzitu

Gauza guztiek daukie alde ona eta txarra.

Ehun txori hegaz baino, bat eskuan hoba

Hobe da zurrak dana gitxi izan arren hartu, eta ez asko euki gura izatea, sarritan ezer be barik gelditzeko arriskua dago eta.

Esnerik ez bada katiluan, zeozer txarra ukuiluan

Arazoak konpontzeko euren jatorrira jo behar da.

Herriak bere legeak eta etxeak bere ohiturak

Zoazan lekura zoazala edo bizi zaran lekuan bizi zarala, bertako lege eta ohituretara egitea komenidu jatzu.

Jente gaztearentzat dira lana, jana eta dantza

Gazte behin baino ez gara eta aprobetxau egin behar da.

**Lehoraldian euri eta bustialdian eguzki, eskean beti
Beti eskatzen dogu faltan doguna.**

Zein hagineta dan mina, han da mihina

Norbera arduratzen da min emoten deusonaz eta horri konponbidea topetan ahalegintzen da.

50 esaera: 8 berbatako 10 esaera

Arrats gorri, goiz argi; goiz gorri, iluntze iturri

Arratsaldean zerua gorrizka dagoanean, hurrengo eguna argia izango da. Baina alderantziz gertatzen bada, hau da, zerua goizean gorrizka badago, iluntzean euria dakar.

Egunik luzeena San Juanena, gaurik luzeena Santa Luziarena

San Juan eguna da egunik luzeena udako solstizioaren inguruan izaten da eta. Negukoa, ostera, Santa Luzia inguruan da eta orduan izaten da gaurik luzeena.

Ez dok tontoa errotaria, artoan truke emoteko garia Inork ez dau ezer debalde emoten.

Gitxi daukana baino, asko gura dauena da behartsu Daukanagaz konformetan ez dana ez da inoiz zoriontsua izango.

Inork emoten dauen ogiagaz, ez dozu gosea kenduko Ez da inoren esku itxi behar gure eguneroko ogia.

Ikusten ez dauan begiak ez dau negarrik egiten Ikusten ez doguzan gauzak edo arazoak ez deuskue minik emoten.

Lagun handia baino errezago da lagun txikia harrapetea Lagun onak ez deustu hutsik egingo; hain lagun ona ez danak, ostera, arinago salduko zaitu.

Lanik ez egiteko, lan asko egin behar da Buruari asko eragin behar jako lana errazteko edo lanik ez egiteko.

Norberarentzat gura ez dana, ez jako besteari emoten Ez egin besteei zuri egitea gustauko ez litxakizuna.

Umeak geldi egon ezin eta zaharrak ibili ezin Edade baxotzak egoera desbardina dakar, umetan lotu barik eta zahartzaroan mobidu ezinik.

Bertso eta kanta

Gaia: Herriko auzoak

Herri handia da Orozko, guztira 102 km² eta 11 ibar ditu. Ondoko herriekin egiten du muga: Arrankudiaga, Arakaldo, Artea, Zeberio, Areatza eta Zeanuri Bizkaian; eta Zuia, Amurrio, Aiala eta Audio Araban.

Erdigunea herriko beheko aldean dago, Zubiaur auzoan. Alabaina, horretaz gain dozenaka auzo daude aipatutako ibar eta mendi-aldatsetan barrena: Murueta, Pagazaurtundua, Atxondo, Bengoetxea, Isasi, Beraza, Jauregia, San Martin, Ibarra, Arrugeta, Aranguren, Zalao, Ugalde, Urigoiti, Usabel, Olarte, Egurtu, Albizu, Sautu, Gallartu.

Hala ere, auzorik eta garrantzitsuenak honek iratetek: Albizuelexaga, Arbaitza, Bengoetxea, Gallartu, Ibarra, Murueta, Urigoiti eta Zubiaur.

Gaia: Gorbeialdea

Orozko inguruetan aurkitutako koba, dolmen edo trikuharri eta bestelako arrastoak gogoan hartuta, Neolito aroan egungo Orozkon jendea bizi zela ikusten da. Leku altuetan dagoen auzo-kopurua egonda, Gorbeia mendiguneari lotutako artzain-bizimodua, oso aspaldikoa dela esan dezakegu.

Baserri-giroko herria da Orozko. Denborak aurrera egin ahala nekazaritzak edo artzaintzak atzerakada handia jasan badute ere.

Gaia: Sanantolinak

Auzo asko dagoenez gero, jai ugari ospatzen dira Orozkon. Baina herriko jai nagusiak sanantolinak (irailaren 2an) dira.

Gaia: Santa Luzia eguneko azokea

Santa Luzia jostunen eguna da, eta abenduaren 13an izaten da. Auzoko emakumeak batu egiten dira ospatzeko eta Santa Luziari bista ona eskatzen zaio.

Santa Luzia azoka ere ospatzen da, azkeneko urteetan "terreña" arrazako behien lehiaketarekin.

Egun honetan nekazal eta elikadura azoka ere egiten da, eta bisitariek Euskal Herriko ortuko produkturik onenak eskuratu ahal izaten dituzte, gazta, euskal pastela edo bestelako elikagaiez gain.

Gaia: Edur-zuloak

Garai batean etxeetan ez zeuden hozkailurik. Eta izotza mendietako elur zuloetatik lortzen zen. Asto eta gurdiarekin lagunduta, izotza zatietan kargatu eta herrietatik barna saltzen joaten ziren.

Gorbeialdean elurzulo pilo bat egoten ziren eta Orozkoko jendea horietaz baliatzen zen.

Gaia: Laminak

Laminak emakume bereziak dira: gerritik gora emakume gorputza dute; gerritik behera, ostera, arrainarena. Badira emakume itxura eta ahateen oinak dituzten laminak ere. Laminak sorgin modukoak direla esan izan da beti. Erreka, putzu eta iturri inguruetan agertzen ei dira, bertan egoten direlarik kantuan eta orraziaz euren adatsak orrazten. Olio usaina uzten ei dute, ilea olio orrazten dutelako.

Orozkon Laminen inguruko pasadizo ezberdinak egon badaude.